

ELKARBIZITZA EGOKIRAKO ARAUTEGIA

2023/2024 ikasturtea



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. ELKARBIZITZARAKO ARAUTEGIA.....	4
2.1. EUSKARA.....	4
2.2. GAILU ELEKTRIKOEN ERABILERA IKASTOLAN.....	4
2.3. IKASTOLAKO EREMUEN ERABILERA EGOKIA.....	5
2.5. IKASTOLAKO GARBITASUNA.....	6
2.6. SARRERAK ETA IRTEERAK.....	6
2.7. ORDUTEGIAK.....	7
2.8. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK.....	7

1. SARRERA

Komunitate zabala osatzen dugu ikastolan. Ikasleak, irakasleak, guraso eta familiartekoak, sukaldariak, jantoki eta orduz kanpokoetako hezitzaileak, garbitzaileak eta bulego zein eraikineko langileak batzen gara egunero-egunero ikastolaren eremuan.

Hainbat lagun jasotzen dituen eremuan garrantzitsua da guztiok elkarbizitzako arau batzuk aintzat hartu eta errespetatzea. Elkarbizitzarako eremua ere bada ikastola eta garrantzitsua da egunerokoan elkarrekin bizitzeko eta giro atsegina eta erosoan izan dezagun guztiok kontuan hartzea.

Gure burua, ingurukoak eta baliatzen ditugun espazioak zaintzeko, ondoko orriotan aurkituko dituzue hainbat irizpide eta arau. Oinarrizko jarraibide hauez gain, zentzumenez eta errespetuz jokatzeko eskatzen diogu komunitate osoari.

Zain gaitzen, zaindu dezagun elkar eta zaindu dezagun ikastola. Denok eskertuko dugu.

Zuzendaritza taldea

2. ELKARBIZITZARAKO ARAUTEGIA

2.1. EUSKARA

Andramari ikastolan euskaraz bizi gara, euskaraz nahi dugu hazi, hezi eta bizi.

Gure ikasle eta zuen **seme-alabak euskaldun eta euskaltzale** izatea nahi dugunez, ikastola eraikinaren barruan zein kanpoan euskaraz arituko gara ikasle, irakasle, langile eta gurasoak.

Gu, nagusiak, eredu gara. Horregatik, euskaraz hitz egiteko gai garenok euskaraz hitz egingo dugu eta euskararekiko errefortzu positiboa eskainiko diegu gainontzekoei. Euskaraz aritzeko zailtasun gehiago dutenek euskararen aldeko jarrera erakutsi, haurrak euskaraz hitz egitera animatu eta ahal den neurrian euskarazko hitzak eta esaldi laburrak erabiltzea bultzatuko dugu.

2.2. GAILU ELEKTRIKOEN ERABILERA IKASTOLAN

Ikastolako jardunaldi osoan (08:30etik 18:00etara arte) lagun arteko harremanak sustatu nahi ditugu. Horregatik, harreman horiek oztopatu ditzaketen gailu teknologikoak ikastolatik kanpora erabiltzeko gordeko ditugu.

Hauek dira ikastolan erabili ezin diren gailuak:

- Sakeleko telefonoak.
- Bideo jokoetan aritzeko gailuak: PSP, Nintendo eta bestelakoak.
- Smartwatch-ak.
- MP3, MP4, MP5 eta antzeko gailuak.
- Bestelako gadget-ak.

Ikasleren batek ikastola barruan aipatutako gailuren bat baldin badu, irakasle, hezitzaile edo momentuko arduradunak jaso eta idazkaritzan utziko du. Gurasoek jo beharko dute idazkaritzara gailuaren bila.

2.3. IKASTOLAKO EREMUEN ERABILERA EGOKIA

Ikastola komunitateko kide guztiok partekatzen dugun eremua da. Elkarbizitza errazteko ikastolako eremu guztiak zaindu behar ditugu.

- Gure ikasleen segurtasuna bermatzeko, beharrezkoa ez bada, gurasoak ikastolara klase orduetatik kanpo bakarrik sartzea komeni da, hau da, goizean 09:00ak baino lehen eta arratsaldean 16:30 eta gero.
- Bizikleta, patineteak, patinak, monopatinak eta antzekoak ikastola eremutik kanpo erabiliko dira. Horrela, ume guztien jolasteko eskubidea bermatu, istripuak ekidin eta denontzako lekua egongo da. Ikasleren batek barruan erabiliz gero, bizikleta edo patinetea hurrengo egunerarte ikastolan gordeko dugu eta biharamunean ikasleari itzuliko diogu.
- Bizikleta eta patineteentzat dauden aparkalekuak, bizikletak zein patineteak bertan uzteko dira. Ez dira jolasteko lekuak.
- Baloiak, txiki zein handiak, ikastolako eraikinaren kanpoko patioetan erabili ahal izango dira soilik. Baloiak **bigunak** izan beharko dira, ezin da baloi gogorrik erabili ikastolan.
- Goizeko lehen orduan, ikastolara sartu aurretik, ezin izango da patioetan baloiarekin jolastu.
- Komunen erabilera: Komunak garbi mantentzea oso garrantzitsua da. Zaindu komunak, ez jolastu bertan eta ez bota esku oihal txikirik edo komunean bota behar ez den ezer.
- Txiza egiteko komunak erabili behar dira, ezin da landetan edo ikastolako beste edozein eremutan egin, ikasleek jolasteko edo bertan egoteko erabiltzen dituzten eremuak dira eta.
- Animaliek ikastola eremutik kanpo ibili behar dute, ezin da animaliarik sartu ikastolara.
- Eraikin barruan ezin da tabakorik, alkoholik edo bestelako drogarik kontsumitu.
- **Garrantzitsua!!** Ikasturte honetan sortu diren berdeguneak lehen hiruhilabetean ezin dira zapaldu.

IKASTOLAKO EREMUEN ERABILERA KLASE ORDUZ KANPO

- Haur Hezkuntzako eremuan dauden jostailuak ezin dira erabili klaseko ordutegia amaitzen denean, arratsaldeetan.
- Beheko jolastokiko estalpeak meriendagune bezala erabilgarri izango ditugu. Haurren meriendetatik sortzen den zaborra zakarrontzira bota behar da, guztion artean jolastokiak eta estalpeak garbi mantendu ditzagun.
- Haur Hezkuntzako (HH) lehen zikloaren sarrerako estalpean dagoen haretza klase orduetan erabiltzeko da. Ordutegi horretatik kanpo ezin da erabili.
- Goiko jolastokian, eguraldi txarra egiten duenean, frontoia zabalik egongo da. Eskolaz kanpoko ekintzaren bat balego, frontoiaren goiko aldea erabili beharko da, entrenamendua eragozpenik gabe jarraitu dezan.

2.5. IKASTOLAKO GARBITASUNA

Ikastolaren garbitasuna ziurtatzeko ezinbestekoa da ondorengoak kontuan hartzea:

- Garbitasun lanak 16:00etan hasiko dira. Ezin dira beranduago hasi, garbitzaileek 23:00ak baino lehen amaitu behar baitute beraien lana.
- 16:30etik aurrera ikastola barruan umeak bakarrik ibiltzea **arriskutsua** izan daiteke, garbitzeko erabiltzen diren **produktu kimikoak** edozein umeren eskura egon daitezkelako.
- Erabili zakarrontziak, ikastola garbi mantendu dezagun. Birziklatzeko edukiontzi ezberdinak daude, behar den bezala erabili ditzagun.

2.6. SARRERAK ETA IRTEERAK

Maila eta talde bakoitzak eraikinerako **sartu** eta **irtetzeko** ate bat du egokituta.

- HH, 0-2 urte: Haurtzaindegiko zein eraikin berriko sarrera nagusitik, gurasoen laguntzarekin.
- HH, 3-5 urte: Beheko patioako sarrera nagusitik.
- LH: Goiko patioan Lehen Hezkuntzari dagokion sarrera nagusitik.

- DBH: Goiko patioan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion bi sarreretatik.

2.7. ORDUTEGIAK

- **Bulegoaren ordutegia:** 09:00etatik 17:30era dago zabalik
- **Eraikina zabaltzeko ordua:**
 - Haurtzaindegia: Goizeko 07:00etan
 - Haur Hezkuntza (HH): Goizeko 09:00etan
 - Lehen Hezkuntza: Goizeko 08:55ean
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): Goizeko 08:45ean
- **Ikastolaren itxiera ordua:**
 - Ikastolako **eraikina** 17:30ean itxiko da.
 - Ikastolako **eremua** 18:00etan itxiko da.
- **Bazkal ordua:**
 - Etxera bazkaltzen doazen ikasleak 14:25ean sartuko dira ikastolara.

2.8. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Eskolaz kanpoko ekintzak umeei eta hezitzaileei kirola, kultura eta euskara lantzeko dira. Ez baliatu ordu horiek askaldu, jolastu edo ikastola barrutik korrika egiteko.